

azken portuko tabernan

jon maya

Edurne Garmendia

▼ edurne koch



«Itoiz eta Hertzainak funtsezkoak izan dira niretzat»

Nortasun agiria

1972. urtean jaio zen, Ordizian, urtarrilaren 22an. Hala ere, Goierri aldean bi urte besterik ez zituen egin, eta geroztik Donostian bizi da. Sentitu ere gehiago egiten da donostiarra. Ikasketak Ibai Ikastolan hasi zituen, Groseko institutuan jarraitu eta Leioako campusean amaitu zituen, Kazetaritzako Fakultatean. Irrati zein telebistan bekadun moduan jardun ostean, seigarren urtez ari da Euskadi Gazteko esatari.

Goizeko lehenengo orduetan burrunbak irtetzen dira Euskadi Gazteko uhinetatik. Edurne estudio barnean dago, eta oihiak eta irribarreak sumatzen dira irradian. «Neska hau jota dago», entzun izan dugu lagunartean edo lanean. Izan ere, halakoxe itxura ematen du: «Nik uste dut nire benetako nortasuna hori dela; batzuetan serioxeago baldin banago, itxura egiten ari naizelako da; nire benetako izaera nahiko arina eta txoroa da».

Negar eta barre erraza duela dio. Txistek ez zaizkio gustatzen, «barre gehien era-

giten didana umore beltza edo zeharkakoa da; pixka bat surrealista naizela ere esaten didate». Negarra, berriz... «ez dakit, zehazki ez dakit zerk eragiten didan, agian ez da hainbestera». Ero tankera honetan, batzuetan lotsati samarra ere badela dio.

Garai batean bati edo besteri bromak egiten aritzen zen irrati. Berari, baina, ez zaizkio gustatzen broma horiek: «Ez zitzaidan inoiz bururatuko telefonoa hartu eta etxetik horrelako txantxa bat egitea». Berak ere jaso izan ditu, «asko». Guztietan gehien gogoratzen duena bere lankideek

ezkontzera zihoala egin ziotena da: «Klaudiok deitu zidan esanez gure nagusiak ere ezkondu egin behar zuela eta ni gonbidatzeko asmoa zuela; nik, aldiz, ez nuen bere gonbidatu, eta Klaudiok esaten zidan oso gaizki geratu behar nuela. Orduan, nagusiarekin hitz egitera joan nintzen, eta azaldu nion, beste jende asko bezala, bera ez gonbidatzea erabaki nuela...». Lankideek, guztia grabatu eta gero emititu egin zuten.

Lanetik kanpo saltsera samarra dela deritzo: «Asteburuetan lagunartean afariak antolatzen saiatzen naiz, elkarteetan eta horrela». Hertsiki lotzen da hau bere beste

zaletasun batekin. Izan ere, sukalde izugarri gustatzen zaio. Bestalde, zinemazale amorratua ere bada. Frantziako zinema du gustuko, Erresuma Batukoa ere bai, Arturo Rosteinen azken filma asko gustatzen zaio... «eta ahal dudala, zientzia fikzioko filmak ez ditut ikusten». Ahal duen guztietan asteburua etxetik kanpo igarotzen saiatzen da.

Ikastaro-jale mundiala da. «Gauza asko gustatzen zaizkit, baina frogatu dudanean eta eman behar didana eman didala ikusten dudanean, utzi egiten dut». Alor askotako papurrak dastatu ditu. Dantzan, esku soinu, ingelesean, informatikan... Gehien atsegin eta jardun duena bikoizketak izan dira. Marrazki bizidun batzuk bikoiztu ditu, eta oso ondo pasatu duela dio.

Eguna diskoen artean ematen du, baina bere kuttunenak ez ditu ahazten: «Agian hogeita zortzi urte ditudalako, niretzat

klabeak izan dira Itoiz eta Hertzainak». Orain Sasoi Ilunak taldearen edo Txuma Murugarrenen estiloa du gustuko; Ruper Ordorika ere «asko-asko» gustatzen zaio: «Gainera, Van Morrisonen kontzertuan ikusi nuen, eta geroztik halako konplizitate bat dut berarekin; Van Morrisonen kantu guztiak zekizkien, eta kontzertu guztia bere aurpegiari begira pasatu nuen Van Morrisoni begiratu beharrean». Atzerritarren artean, Pearl Jam, Red Hot... atsegin ditu.

Urtarrilean haurtxo baten ama izango da lehenengoz.

bat-batean

■ Mikel Garmendia ala Joxe Mari?

Mikel Garmendia

■ Zer atsegin duzu gehien?

Baikortasuna

■ Eta gutxien?

Ezkortasuna

■ Amets bat?

Errealitatea eta ametsa

gauza bera izatea

■ Zer eramango zenuke

uharte batera?

Papera eta boligrafoa

■ Parrandarako leku bat?

Sukaldea

■ Eta edateko?

Kafea

■ Pertsonaia bat?

Homer Simpson

■ Kantu bat?

Bizitza garratza (Sasoi Ilunak)

■ Nori egingo zenioke

elkarrizketa hau?

Edonori, asko gustatzen

baiztaizkit elkarrizketak

zirika



amets arzallus

Aitona, erradazu ezetz

Aro zaharretan, boterea ukaiteko, familia barneko gerlak usu gertatzen ziren. Aro ez hain zaharretan, ene bi aitonekin ere horrelako zerbait gertatu zen. Izan ere, gazte zirelarik, biak gerla zibilean esku hartu zuten. Elgarren aurka. Goiazkoa, frankistek behartuta eramana zuten, eta Zumaiakoa, boluntario joana zen errepublikanoen aldera. Ez dakit batak besteari tirorik bota zionetz, baina bie, bala bana gelditu zitzaion.

Geroan, Goiazko aitona ni heldu aitzin joana zen mundutik. Zumaiakoa, oraino bizi da. Hortakotz, ikastolan gerla kontuak hainbeste aldiz entzun ondotik, beti ukan dut emeia aitonari gudu hura nola bizi izan zuen galdetzeko. Iragan astean, lehen aldikotz, solasaldiak haraxe eramanik, gerla zibileko istorioak kon-

tatzen hasi zitzaidan: «Zumaiatik, boluntario, lau lagun joan ginen. Eta bi itzuli. Gernikatik abiatu...», eta luze segitu zuen. Tartean-tartean, «oraindik hemen daukat bala» errepikatzen zidan, saihesten alde seinalatuz. Fini zuelarik, arreba txikiak, inozentzian, «hori al zen gerra zibila?», galdetu zion. Baietz erantzun zion aitonak.

Gauean, aitonaren erranak itzulika nituela hartu nuen lo. Amets batean, ni ere, mutiko izatetik aitaxi izatera pasatu nintzen. Iloba galdezka ari zitzaidan ondotik, ea euskaldunak nola desagertu ziren. Ni, ene frantses eskasean, gazte garaiko kontuak kontatzen hasi nintzaion: «Mutiko nintzela, etxean, ikastolan eta karrikan euskaraz mintzo ginen. Euskal Herrian, eus-

kaldunak ginen gehiengo. Baina elgar laguntzeko partez, aitona bezala, elgarren aurka guduan aritu ginen. Eta gerla guk geuk bakarrik galduko ginuelarik, Madrildik epaile handi bat jin zen, Garzon izenekoa. Euskal kutsuko birus txar guziak hark desagerrarazi zituen. Lehenik, politikariak preso sartu zituen, gero, egunkariak itxi zizkigun, ondotik, euskara irakastea debekatu zuen...», eta luze segitu nuen. Tartean-tartean, «oraindik hemen daukat bala» errepikatzen nion bihotz partea seinalatuz. «Aitona, nola esan duzu izena zuela epaile gaixto hark?». «Garzon». Berehala, iloba txikiak, inozentzian, «hori izan al zen inkisizioa?», galdetu zidan. Eta orduan, aitonaren baietzaz oroitu nintzen.